

# BIZKAIA TALENT:

## SKILLATHON: Erakundeen eta unibertsitateko ikasleen arteko topaketa Z belaunaldiari zuzendutako marka







Iratxe Tajada Merodio

iratxe.tajada@bizkaiatalent.eus

627690864

<https://www.bizkaiatalent.eus/eu/skillathon-2021/>

- 
-  **Jarduera:** Irabazi-asmorik gabeko elkarteekin lotutako ekimena, egiteko argi batekin: berrikuntza- eta ezagutzaren arloko prestakuntza handia duten pertsonak erakarri eta lotzeko eta horiei eusteko beharrezko baldintzak sustatu eta erraztea Bilbon, Bizkaiko Lurralde Historikoan eta oro har Euskadin.
  -  **Sektorea:** Irabazi-asmorik gabeko elkarteak
  -  **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 12
  -  **Lokalizazioa:** Parque Tecnológico de Bizkaia Edificio 804 Módulo 300, 48160, Derio, Bizkaia

**EUSKADI** mailako berrikuntza **INKREMENTALA****Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

Esperientzia berri eta erreala delako eta aurretiazko esperientziak erakundeko langileen ezagutzekin hobetutako berrikuntzekin nahasten dituelako; horretarako, Design Thinking tresnen bitartez gamifikazioa aplikatzen du enpresek planteatutako erronketan, Euskadiko lan-merkatuko eskumenen arrakala ixteko helburuarekin. Ekimen aitzindaria da unibertsitateko ikasleen zeharkako gaikuntzarako eta horien eta Bilboko, Bizkaiko eta Euskadiko industria- eta enpresa-eragileen arteko lankidetzarako.

**KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA**

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailak sustatua, Bizkaia Talent ekimenak 15 urte daramatza irabazi-asmorik gabeko elkarteekin lotutako ekimena izaten, eta egitekoa argia da: berrikuntza- eta ezagutzaren arloko prestakuntza handia duten pertsonak erakarri eta lotzea eta horiei eustea.

Hau da Euskadiko lan-merkatuaren egoera: enpresen % 90ek ez dituzte topatzen behar dituzten profilak, eta piramide demografikoak junior talentuaren aldeko borroka areagotzen du. Gazteek ezjakintasun handia dute tokiko enpresen inguruan, eta, aldi berean, euskal enpresen erdiek ez dute marka kokatzeko ekintzarik egiten.

Basque Talent Observatory izeneko tresnak aukera emateko du Euskadiko lan-merkatua monitorizatzeko Big Data analisiaren bitartez. Informazio horretatik abiatuta, Bizkaia Talentek enplegarritasuna hobetzeko behar diren trebetasunak identifikatzen ditu. SKILLATHON ekimenak esperientzia interaktiboa eta parte hartzailea ematen die bai enpresei eta bai ikasleei, aldean arteko hausnarketara eta ezagutzen trukera bideratutako dinamiken bidez (online eta offline). Interakzioaren analisiak, ekitaldiaren aurretik eta ondoren, aukera ematen du profil eta lehentasunak segmentatzeko eta aldean asebetetze-emaizak neurtzeko.

SKILLATHON Talentia Skills programaren barruan sartzen da, soft trebetasunak lortzeko 4 urteko gradua barne hartzen duen ibilbidea. Programa lankidetzan egiten da Bilbao Metr poli-30 eta Euskadiko ZTB sistemako eragile ugariarekin, horien artean unibertsitateak (UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) eta klusterrak (Basque Energy Cluster, Gaia, AFM, Euskadiko Elikadura Klusterra, ACICAE, Basque Health Cluster, HEGAN, Aclima, MLC ITS Euskadi). Halaber, urtero 6 elkargo profesional, 8 eragile sozial, erakunde publikoak (adibidez Beaz), 30 enpresa inguru eta aurreko urteetan programan parte hartu duten hamar bat gazte profesional aritzen dira lankidetzan.

SKILLATHONak eragin positiboa du 4. GIHan, denboran zehar trebetasunak lortu eta ebaluatuz, baita 8. GIHan ere, egoera profesionala monitorizatuz eta zeharkako trebetasunak baloratuz, enplegu-arrakala murrizteko xedearekin.

Ekimenak eragin positiboa izan du bai enpresen branding delakoan (junior talentuak horiek hobeto ezagutzen ditu) eta bai ikasleen trebetasunak egokitzeko orduan (soft skills); kanal anitzeko ikusgarritasun mediatikoa sortu da (sare sozialak, irratia, WOM), eta ekimenaren erabilgarritasun soziala zabaldu da.

**Aurrekariak**

Euskadiko lan-merkatuan, arrakala dago Euskadiko enpresen soft skills eskariaren eta alor horretako ikasleen gaikuntza-mailaren artean. Bizkaia Talentek, bere bazkideen laguntzarekin (Bizkaiko Foru Aldundia, BBK Fundazioa, Beaz, CIC bioGUNE, IDOM, ITP Aero, Sener, Iberdrola, MONDARGON Corporation, Tecnalia, Deustuko Unibertsitatea, UPV/EHU), arrakala hori murriztu nahi du talentu gaztea erakarri, hari eutsiz eta hura indartuz. Ekimenak 15 urtetik gorako esperientzia du, eta bere dinamika berritzen ditu egungo arazoei aurre egiteko.

**Erronka**

SKILLATHON ekimenaren bitartez, Bizkaia Talentek enpresak eta gazteak elkartu nahi ditu eta ikasleen zeharkako trebetasunak (soft skills) garatzeko lankidetzan sustatu nahi du, Euskadiko lan-merkatuaren efizientzia indartzeko xedearekin. Konponbideak asmatu eta marka enplegatzailearen estrategiak balioztatu nahi ditu, talentu gazteari zuzenduak, aukera teknologikoak ustiatuz.

**Ekintzak**

1. Enpresen irekiera-mailaren analisia employer branding delakoarekiko. Enpresen egoeraren profilak unibertsitateko ikasleen aurreko irudiari dagokionez.
2. Gazteen lehentasun profesionalen analisia. Prestakuntza-etapan dauden junior talentuen kezken profilak.
3. Ekitaldiaren garapena: funtsezko trebetasunen prestakuntza gamifikazio-tresnen eta Design Thinking izenekoaren bidez; junior talentua eta Euskadiko enpresak elkartzea. Lankidetzan, user experience, prozesuaz gozatzea eta aldaketarako egokitzapena errazteko diseinatutako eta aplikatutako tresnak.
4. Ekitaldiaren aurreko eta osteko ebaluazioa. Arrakalak identifikatzeko eta konponbideak elkarrekin sortzeko neurketa kuantitatiboa (inkestak) eta kualitatiboa (focus group).

5. COVID-19aren osteko online diseinua prozesua hobetzeko. COVID-19aren agerraldiaren ondorioz, ekitaldia formatu telematikora egokitu behar izan da, talentuaren eskariaren eta eskaintzaren arteko konexioa bermatuz eta prozesua konfiguraturaz teknologia digitalen bitartez.

## Lortutako emaitzak

Eragina ekimenaren ikusgarritasunean:

- Ekitaldiaren berria zabaltzea 15.000 profesional baino gehiagori, informazio-buletinen bitartez.
- Online komunikazioa: LinkedIn plataformako posta 20.000 profesionalentzat.
- Herri Irratiko elkarrizketa 50.000 entzuleko batez besteko audientziarekin.

Eragina enpresen brandingean:

- Ekitaldiaren aurretik ikasleen % 15ek baino gutxiagok ezagutzen zuten erakunde parte-hartzaileen bat.
- Ekitaldiaren ondoren, batez beste, ikasle bakoitzak inguruko 5 pertsonari hitz egiten die enpresa parte hartzaileen inguruan. % 22k 6 pertsona baino gehiagori hitz egin diete horien inguruan.
- Branding konponbideak aplikatzea: erakunde parte hartzaileek jasotako konponbideen proposamenak gauzatzeko lehen urratsa eman dute.

Zeharkako trebetasunetako gaikuntza handitzea: talde-lana eta sormena nabarmentzen dira.

---

## KASUAREN KATEGORIZAZIOA

---

### Berrikuntza-eremuak:

- Prozesua: Berrikuntzaren Kudeaketa.

### Aukera arloak:

- 1 - Gizarte eraldaketa eta konpromisoa

**Mireia Azpiazu (Nazioarteko Networking Ekitaldien arduraduna)**

“Gakoak: prozesuaz gozatzea, lankidetzan aritzea, eta, batez ere, aldaketara egokitzea”.

**Iratxe Tajada (Responsable del Servicio de Desarrollo del Talento Junior)**

“Es importante poner al usuario en el centro, analizar y co-crear las posibles soluciones innovadoras de forma colaborativa”.

### Innovation Index Score: ★★★★★☆

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★★★★★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★★★★

Sistematizazioa: ★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★★★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★☆☆★

★

Eragina: ★★★★★

Aintzatespena: ★★☆☆★★